

**Floren Nazabal**  
**Bikotekako**  
**Txapelketan**



Aizkora >> 13

Asteazken **eguerdian festak** hasiko dira **Iturmendin**. Arratsaldean **Irurtzun** batuko zaio, **igandera arte** luzatuko dira **ospakizunak**



Sakanerria >> 8

## Hemen dira Uda-Ikastaroak

Sakantzen Sareak bigarren urtez antolatu ditu ikastaroak, sakandarreri prestakuntza eskaintzeko

Sakanan sortu berri diren bi elkarterekin elkarlanean antolatu ditu ikastaroak Sakantzen Sareak

Lau ikastaro dira: web guneak, komunikazio estrategikoa, Sakanako historia eta nekazaritza birsortzailea

>> 5



Garagarzarroan eguraldiak lagundu bazien ere, azken egunetako euriak indusketa lanak eten ditu eta beste egitekotan ari dira arkeologoak.

**Lakuntzako plaza, lanak hilabete baterako** >> 7

**Iturmendik kurtso berrian eskola berria** >> 9

**Irurtzungo festetan sexu erasoen kontra** >> 8

**Udako Zinema asteartetik Irurtzunen** >> 15

## Arkeologoak Zamartzen aterpean

>> 10



**Nekazaritza Politika Baturako**  
6.332,76 ha >> 3



**Aramendia anai-arrebak txirrindularitzan,**  
puntan >> 12

**ZURE NEGOZIOA GIDAN IRAGARTZEKO DEITU**

948 56 21 07  
618 88 26 27



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu  
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE  
REMOVE  
PLANA

%20<sup>ra</sup>  
arteko  
deskontua

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Markel**  
ZORIONAK! Gu mutil  
ttiki, alei ta sinpatikuonek,  
ostegunontan eehendik ur-  
tiat munduboonan biziala.  
Alkar ospatukoyau egune  
hik ematen deken alaitasu-  
nakin. Il famelikuek."



**Jon**  
ZORIONAK txapel-  
dun! Zeinen ongi pasa  
genuen sanferminetan  
zure urtebetetzea osp-  
patzen. Musu handi bat  
etxekoan partez.



**Amiña Txelo**  
ZORIONAK super-  
amiña! Zeinen ongi  
pasako dugun zure  
urtebetetzean. Hiru  
musu potolo. Osane,  
Julene eta Jon.



**Ibon Muñoa  
Goikoetxea**  
Uztailaren 6an txupina-  
zoa botatzera etorri zi-  
nen eta oraindik, he-  
men gaude zurekin pa-  
r-randan. ZORIONAK  
pottoko!!



**Maren eta Eder**  
ZORIONAK Maren eta Eder!! Eskerrik asko  
10 eta 8 urte gurekin egoteagatik.  
Askok maite zaituztegu. Aita eta amaren partez.

## garilak

# 4-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Zinema

**La vida secreta de Walter Mitty.**  
Garilaren 15ean, asteartean,  
22:00etan Irurtzongo Foru plazan.

### Mendi irteerak

**Erkuden.** Garilaren 13an, domekan,  
8:00etan Altsasuko Mendigoizaleak  
elkartearen egoitzatik.

### Tailerrak

**Web gune baten instalazio eta  
moldaketa azkarra.** Garilaren 14an,  
astelehenean, 9:00etatik 13:00etara  
eta 15:00etatik 18:00etara Arbizuko

Utzugane: Sakanako Garapen Gunean.  
Sakantzen Sarea. Aurretik izena eman.

### Bestelakoak

**Ur festa goxoa.** Garilaren 15ean,  
asteartean, 21:00etatik aurrera  
Uhartte Arakilgo igerilekuan eta  
garilaren 17an, ostegunean,  
21:00etatik aurrera Altsasuko  
igerilekuan.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**  
Garilaren 11n, ostiralean, 20:00etan  
Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri  
Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.



**Euskal Presoak Euskal Herrira!**  
Garilaren 13an, domekan, 20:00etan  
Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.**  
Garilaren 14an, astelehenean,  
15:30ean Altsasuko Gure Etxea  
eraikinean.

## objektibo tik



### Auto fantastikoak:

Larunbatean auto klasikoaren erakusketa hartu zuen Zumalakarregi plazak.  
Txikiak gineneko oroitzapenak piztu zitzaizkigun Seat 124, Seat 600, Eskar-  
rabajoak, RSak, Simca 1000, 2 cv... ikustean, gure txikitako autoak izan bai-  
tziren. Triumph, Alpine eta Ferrariek, berriz, amets egin genuen.

objektibo tik: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)



### Urdiaingo festetan polkan:

Euriari eta hotzari aurre eginez, giro bikaina izan da Urdiaingo aurtengo  
San Pedroetan. Plazan dantza eta dantza aritu dira urdiaindarrak. Doinu  
dantzatuenean artean polkak toki berezia egin du. Polkaren doinuak en-  
tzun bezain azkar, plaza topera!

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** <sup>107.3 FM</sup> *online*  
www.guaixe.net

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak...

Esataria: *Eneida*

## SAKANA

# Nekazaritza Politika Baturako 6.332,76 hektarea

Azalera gehiena, %91,75, abereen bazkarako bideratua dago

Sakandarrek Europako Nekazaritza Politika Baturako (NPB) 6.332,76 hektarea aitortu dituzte, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentutik jakinarazi digutenez.

Eskaera gehien, %66,19(4.191,95

hektarea), abereen bazkarako bideratutako 5 urte edo gehiago dituzten larre iraunkorren jabeek egin dituzte. Abereendako bazka-laboreak ere indako hektarea kopurua da Europarako aitortu den bigarrensail handiena, %25,56(1.618,75 hektarea). Azaleren tamainagatik gainontzeko laboreen kopuruak askoz txikiagoak dira: artoa %2,97 (188,39 hektarea); garia %2,54(160,92 hektarea); garagarra

%1,48 (93,9 hektarea); artoa %0,92 (58,44 hektarea); baba %0,23(14,71 hektarea) eta 5 urte baino gutxiago dituzten larre iraunkorak %0,09 (5,7 hektarea).

Arakil eta Uhartea Arakil dira mila hektareatik gora deklaratu dituzten herri bakarrak. Ergoiena 100ean gelditu da eta bideerdian Etxarri Aranatz. Irurtzun da 100 hektarea deklaratzera iritsiez den Sakanako herri bakarra.

Lur sailak											
Herria	Garia	Gari gogorra	Garagarra	Oloa	Artoa	Baba	Bazka-laboreak	Larre-5	Larre+5	Guztira	
Arakil	90,27	0	58,92	37,67	68	9,06	622,2	4,58	939,73	1.830,43	
Irurtzun	0	0	0	0	0	0	13,47	0	69,14	82,61	
Irañeta	0	0	14,38	0	15,12	0	83,85	0	112,43	225,78	
Uhartea	4,88	0	3,62	4,5	45,95	0	284,98	0	720,62	1.064,55	
Arruazu	10,48	0	5,11	1,81	35,01	0	23,27	0	57,52	133,2	
Lakuntza	5,79	0	0	2,34	12,54	0	69,21	0	159,56	249,44	
Arbizu	12,48	0	0	0	5,38	3,61	97,32	0,32	125,16	244,27	
Ergoiena	24,89	0	0	0	0,14	0,04	100,14	0	784,25	909,46	
Etxarri A.	0	0	0	0	5,2	0	271,05	0	277,08	553,33	
Bakaiku	1,63	0	3,53	3,94	0	0	12,33	0	10,2	131,63	
Iturmendi	10,5	0	8,34	8,18	0	2	17,9	0,8	95,95	143,67	
Altsasu	0	0	0	0	0	0	13,17	0	255,7	268,87	
Olatzagutia	0	0	0	0	1,05	0	3,37	0	181,21	185,63	
Ziordia	0	0	0	0	0	0	6,49	0	303,4	309,89	
<b>Guztira</b>	<b>160,92</b>	<b>0</b>	<b>93,9</b>	<b>58,44</b>	<b>188,39</b>	<b>14,71</b>	<b>1.618,75</b>	<b>5,7</b>	<b>4.191,95</b>	<b>6.332,76</b>	
	<b>%2,54</b>	<b>%0</b>	<b>%1,48</b>	<b>%0,92</b>	<b>%2,97</b>	<b>%0,23</b>	<b>%25,56</b>	<b>%0,09</b>	<b>%66,19</b>	<b>%100</b>	

Ez dizkigute Urdiago datuak eman.

**BAIZA motor**

**STIHL**

**VIKING**

Makinariaren alokairua

Pentsu ekologikoaren salmenta

948 461 734  
Burundabide 5  
ETXARRI ARANATZ

948 500 392  
Dos Hermanas 34  
IRURTZUN

65,29 €

535,00 €

Galdetu

164,46 €

160,00 €

3.295,00 €

53,72 €

164,46 €

552,90 €

1.949,00 €

580,00 €

2.150,00 €

752,00 €

165,00 €

1.651,00 €

\* Agertzen diren prezioei BEZa gehitu behar zaie.



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

## Ekintzaileak

Guaixen Irakurri dugu Sakanan jarrera ekintzailea duten langabetuak behar direla. Etorkezuna hori dela diote, ez bakarrik sakandarrentzat. Lan duin bat nahi duenak bere lan postua sortu beharko du. Hortik kanpo autonomo faltsuak, ETTak eta lan baldintza lotsagarriak geratuko dira. Eredua aldatu egin digute eta momentuz, bidea

molatzea dela dirudi. Baina ekintzaile bihurtzeko, mentalitate aktibora pasatzeko nahia eta gogoaz gain, beste zerbaitek behar da. Estatuak azken urte hauetan ahaztu duen funtsezko printzipio juridiko baten errespetua: segurtasun juridikoarena. Denok dakigu partidua hasi ondoren ezin direla jokoaren arauak aldatu. Eta hori garran-

tziatsua bada guztiontzako, are gehiago gaur egun proiektu ekonomiko eta pertsonal berriak martxan jartzen dituztenentzako.

Adibide bat. 2013ko otsailean onartu zen lege baten bidez autonomoentzako (ekintzaileentzako) 50 €ko delako "tarifa plana" bat, gizarte segurantzako kotizazioetan. Ekainean ministerio-

aren barneko arau baten bitartez erabaki zen "tarifa" hori ez zela beraien enpresen administrazioentzako. Horrek suposatzen zuen baldintza horietan beraien proiektuak martxan jarri zituztenei 300,400 €ko kuotak (hileroko) eskatu zitzaizkiela. Askok bertan bera utzi behar izan zituzten proiektu horiek. Energia berriz-

tailea ekoizten duten ekintzaile txikiei antzeko zerbaitek gertatu zaie pasa den astean argitaratu den konstituzionalaren epaiarekin. Eta beste adibide asko daude.

Sakanak ekintzaileak behar ditu, baina ekintzaileek marko juridiko egonkor bat behar dute eta hauxe galdatzen duen gizarte informatu eta kritiko bat.

## barrutik kanpora

### Oporrak

Astebetean deskonektatuta eman ondoren, lasai, korrean sartu orduko Guaixeren uztailaren 3ko abisua "heldu den astean zure idatzia argitaratu nahi genukeela. Ea posible duzun astelehen eguerdirako bidaltzea." Astelehena gaur da, San Fermin eguna. Ea posible duzun? (Ez dut "aber" erabiliko, ez horixe; ez dut horren beharrik.) Ez zizkigun, bada, Guaixek ekainaren 12ko mezuan oporrak eman? Begira: "Ikastur-

te honetan Aizpea euskara taldekoak zintzo asko aritu zarete (...). Zuek ez nekatzeko eta euskalgintzako beste ahots batzuei ahotsa emateko ikasturte berrian beste eragile bati lekuko hori pasatzea erabaki dugu." Primeran. Aizpearen bilera batean mezua irakurri ere egin genuen. Lan bat gutxiago. San Juan gaua prestatu, hurrendako Udan euskaraz blai kanpaina antolatu eta... oporrak, iraila arte jai.

Ikasturte berria, Guaixekoek argi ziotenez, irailean hasten omen. Ikasturtea garagarriarekin batera despeditu nahi guk. Gaizki ulertua? Opor gosea? Kasurik ez egin? Paso "astelehen eguerdirako bidaltzea" horri? Baina zintzo aritu bagara...

Haritik tiraka: oporrak, paso egin... Paso egin ez, baina paso eman, bide eman zergatik ez? Zergatik ez Aizpean bertan? Gazteagoei. Ospa egin. Tokia utzi. Beti-

koak, betiko? Egia da gazteagoei elkar-lanean aritu izan gaila gauza zehatzetan. Pikuxarrekoekin, bereziki. Gutxiegi, zalan-tzarik gabe. Guaixekoek beste ahots batzuei, beste eragile batzuei aukera eman behar zaiela diote. Gaiari behin baino gehiagotan heldu izan diogu, egia. Aprobetxatuz gero bi hil hauek hausnartarako.

Bukatzeke, eskerrak Guaixeri tarte hau utzi izanagatik eta ea

(aber-ik ez) hurrengoan Aizpea-kokide berriek heltzen dioten egiteko honi.



**Aizpea, Irurtzango euskaltzaleon topagunea**

## hara zer dien

# Josefina Arregui Klinikaren lagunen elkarte

Josefina Arregui Klinikaren Lagunen Elkarte Klinikari laguntzeko sortu zen, baliabide ekonomikoak bilatzeko haren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzearren.

Helburu horiek ditu, bada, Klinikaren lagunen elkarteak.

Gure "LAGUNEN" elkarteajaio zenetik bi urte eta erdi iragan dira, eta nabaritzen da lantegira sartzen garenean edo gaixoak eta haien familiak Klinikara etortzen direnean: lorategiak zainduak; belarra ebaki berria; lore apaingarriak; aparkalekuko

arrastoak bikain markatuak; Felipek utzitako ipotzak ederki pintatuak, lehen ez bezala; kristalak garbiak; patioak berria ematen du (lehen lurzorua zuloz bete zegoen eta ura baldosa guztietatik pasatzen zen. Orain, berriz, hustubideetatik joaten da ura). Zentroko hormak ongi margotuak, bai asteburuetan, bai gauez, ordutegiei edo ordainei begiratu gabe: dena maitasun handiz egina. Pentsa, lagunak etorri izan dira gauez jantokia pintatzera, egunez ez baitzegoen astirik pintura lehor zedin.

Haiekin mintzatuz gero, harro eta pozik daude egindako lanarengatik. Beren burua eskaintzen dute behar denerako: zurgintza, igeltserotza, lorezaintza, pintura, garbiketa, elektrizitatea, eta abar.

Urte hauetan, lagunek lan handia egin dute, eraikinari zerbitzu egokia emateko moduan eusteko, apal, teknologia handirik gabe, nahi bada. Baina osasun arazo larriak (bai pertsonalak, bai familiarakoak) zituzten gaixoei laguntzen saiatu gara, eta ahal duguna egin dugu berriro beren etxe-

ra itzul zitezen, susperturik.

Gaixotasun larriak dituzten pertsonak izan ohi dira, patologia bikoitza dutenak, bai organikoak, bai psikiatrikoak.

Nafarroako Erkidegoan ez dago horrelako zentrorik, gaixotasun larri eta arriskutsuak berehala tratatzeko moduko osasun zentrorik.

Lagunen lana laguntza ekonomiko ezinbestekoa da guretzat. Haiek gabe, ezin izanen genuke osasun zerbitzua eman.

Lagunak izatea euskarri oinarritzakoa da guretzat, bai azpiegitu-

retan, bai animoan, segurtasunean, elkartasunean. Haien arri-muan, Felipe Leceak ahalegin handiz martxan jarritako proiektuak aurrera jarrai dezake. Haien konpromisoagatik, eskuzabaltasunagatik, onberatasunagatik eta dena emateko prest izateagatik, proiektuak segitzen du bizkor eta indartsu, bizitza abian da, eta balio horiek tinko eta sendodiraute. Beste behin ere, eskerrak asko, LAGUNOK. Drogas adiskideak esaten duen bezala, "gustura" egotea da guretzat, zuek hurbil izatea.

**Josefina Arregui**

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza  
**ZUZENTZAILEA:** Oihana Zubeldia  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:



## Sakanako Uda-ikastaroak

## SAKANA

## Hemen dira Sakanako Uda-Ikastaroak

**Sakantzen Sareak bigarren urtez antolatu ditu, sakandarrei prestakuntza eskaintzeko eta ibarreko ekimen berriez informatzeko helburuz**

Astelehenetik hilaren 27ra bitartean izanen dira Sakantzen Sareak antolatutako Sakanako Uda-Ikastaroak. Horiek antolatuzko garaian sareko kideek sakandarrei prestakuntza eskaintzea dute helburu. Lau ikastaroetatik bi, gainera, Sakanan sortu berri diren bi elkarterekin elkarlanean anto-

latu dituzte: nekazaritza birsortzailean lantzen duen Mandoibai elkarte eta Sakanako historia lantzen duen Ezpilleta elkarte. Biekimen horien berri emateko bitarteko ere bihurtuko dira Sakantzenen uda-ikastaroak.

Pasa den urtean estreinakoz antolatu zituen sareak udako prestakuntza saioak. Orduko hartan enpresa berriak sortzeko asmoa zuten pertsonen laguntza zein prestakuntza eskaini eta

Sakanako ekintzailetasuna indartzeko asmoz antolatu zituzten ikastaroak. Sakantzen Sareko kideek aurtengo ikastaroeraz adierazi dute: "mundua zein eskualdea aldatzen doan heinean, eskualdeko beharrak ere aldatzen doaz eta aurtengo udako ikastaroeraz begira hainbat lehen-tasuneko behar identifikatu ditugu".

Sakantzen Sareak Cederna-Garalur, Nafarroako Gobernu,



## Izena ematea:

sakantzensarea@gmail.com helbidera idatziz eta 685 75 90 56 telefonora hots eginez. Toki mugatuak daude.

Europako Leader Programa, Sakanako Garapen Agentziaren eta Utzugane: Sakanako Garapen Gunearen babesaz eta laguntzaz antolatu ditu ikastaroak.

## Web gune baten instalazio eta moldaketa azkarra

Garilaren 14an, astelehenean, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara Arbizuko Utzugane: Sakanako Garapen Gunean. (7 ordu) Webgune baten instalazio eta moldaketa azkarra landuko da. Ikastaroaren helburua webgune bat sortzeko behar den jakintza eskuratzea da, doako blog batetik domeinu propioan webgune oso bat arte. Ikastaroan bi CMS ezagunenak diren Wordpress eta Joomla! nola instalatzen diren ikasiko dute egiteko sistemak aztertu, bakoitzaren indargune eta ahulguneak azalduz.

**Irakaslea: Galder Gonzalez Larrañaga.** Geologian lizentziatua, Primatologian graduondokoa eta "Euskal Pentsamendu Kritikoa XX eta XXI. mendean" masterra. Orain dela 3 urtetik Forma Promo S. L.n lan egiten du, web garapen, diseinu eta sorkuntza lanetan.

## Komunikazio estrategikoa: produktu eta kanpainak lantzeko irizpide minimoak

Garilaren 18an, ostiralean, 17:00etatik 20:00etara eta garilaren 19an, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara Arbizuko Utzugane: Sakanako Garapen Gunean. (7 ordu) Komunikazioa enpresa, elkarte, erakunde zein pertsona askorendako atal klabe bat da. Ikastaro horren helburua komunikazioa planifikatzeko prozesua ulertzea eta ezagutzea da. Horretarako, iragarlearen zerbitzura dauden komunikazio teknikak eta beren aplikazioa ezagutzeko aukera izanen da. Bestalde, lan taldearen bidezko komunikazio plan baten garapena eta proposamenean praktikatzeko aukera izanen da.

**Irakaslea: Itziar Amunategi Barandika:** Komunikazioan lizentziatua eta Masterra Entrepesa Komunikazioan. Postgradua Komunikazio Zuzendari-tzan. Aspaldidanik komunikazio eremuan lanean enpresa publiko, pribatu, instituzio eta herri mugimendu ezberdinekin, egun Basquetourren lanean.

## Ikastaroak

## Sakanako Historia

Garilaren 22an eta 23an, asteartean eta asteazkenean, 18:00etatik 20:30era Arbizuko Utzugane: Sakanako Garapen Gunean eta garilaren 27an, igandean, 10:00etatik 13:30era Uharteko Arakilgo Plazan. (8,5 ordu)

Sakandar askorendako ezezaguna da gure ibarrraren bilakaera historikoa. Hori apurtu nahian, oraintxe sortu berri den eskualdeko Ezpilleta elkartearekin batera prestakuntza saio hau antolatzeko aukera suertatu da. Eskualdeko bilakaera historikoa landuko da, hainbat garai landuz:

- XIV. mendeko Erdi Aroko populazioa. Nola iritsi garen gaur egungo antolamendua izatera guda, gosete eta izurriteen ondorioz.
- Lursail publiko eta pribatuaren arteko desberdintasunak historiaren bitartez. Lursail komunak, pribatuak, publikoak, batzarreak, kortak edota sarobeak.
- Euskal Herriko bide erromanikoa. Arkeologia eta Turismoa.
- Megalitismoa, artzaintza eta historiaurreko ustiapenak.
- Agiregi jendeztatu gabekora bisita eta Gortexeko trikuharrien ibilbidea egiten da.

## Irakasleak:

**Mikel Markotegi Ijurko:** Ezpilleta Elkarteko kidea.  
**Francisco Javier Castro:** Historiagilea eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia saileko kidea.  
**Oihan Mendo Goñi:** Arkeologoa.  
**Pedro Arrese Villanueva:** Institutuko Historia Irakaslea.

## Nekazaritza Birsortzailea: bertako mikroizakien hazitegia, biongarriak eta bokashia

Garilaren 26an, larunbatean, 9:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara Etxarriko Udaletxean kedada. Ondoren Mandoibai dermioko herri baratzan. (7,5 ordu)

Gaur egun, nekazaritza ekologikoaren inguruan talde eta esperientzi kolektibo ugari, autogestionatuak ala ez, sortzen ari dira. Horietako bat Mandoibai Elkarte da. Elkartearekin elkar lanean nekazaritza birsortzailea lantzeko prestakuntza saio bat izanen da. Nekazaritza mota horrek lurra lehengoratzten (erregeneratzen) laguntzen du. Erabiltzen dituen teknikak, lur eremuan aplikatuz, ura denbora luzeagoan gordetzea lortzen da, bertako mikroizakien osasuna hobetu eta lurzorutik datorren karbono dioxido isurketa gelditzen du. Helburua lurzorua oreka berreskuratzea da, ura eta materia organikoaren galera ekidinez, horrela landareak osasuntsu garatzen dira kanpoko intsumorik aplikatu gabe, nekazaritza birsortzailea bertako ezagutzetan eta baliabide-tan oinarritzen baita.

**Irakaslea:** Gipuzkoako Ximaurpila elkarte eta Euskal Herriko Nekazaritza Birsortzailea Sustatzeko taldea.

## ZERGATIK JARRI AIRBUMP® A EETAN?



CITROËN C4 CACTUS BERRIA  
AIRBUMP® BABESAREKIN



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN nahigo du TOTAL KONTSUMO MISTOA (100KM/L) / CO2 EMISIOA (KM/G): CITROËN C4 CACTUS: 3,1 - 4,6/82 - 107

» Arakil / Irurtzun / Irañeta / Uharteko Arakil

## Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 25 urte

Irurtzongo udaletxean egindako ekitaldi xume batekin pasa den asteko asteazkenean ospatu zuten Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen 25. urteurrena. Ekitaldian gaur egungo langile eta udal ordezkariekin batera garai batean aritutakoak ere izan ziren. Ekitaldi labur horretan erakundearen ibilbidea eta zerbitzutik pasatako udal arduretan edo lanean aritutako pertsonak izan zituzten gogoan.

Egindako errepasso horretan

aipatu zituzten, besteak beste, herriak eta haien biztanleria aldaketa baita oinarrizko zerbitzuan bertan lan egiteko moduan eman diren aldaketa handiak ere. Gaur egun zerbitzuak duen lan zama handia dela nabarmenduz zuten eta hurrengo urteetan aldatzeko jorarik ez dela izanen aurreikusituz.

Ibilbidearen errepassoan aparteko aipamena merezi izan zuen mankomunitatearen egoitza aldaketak, hura ere bisitatu zuten. San



Udal arduradunak eta langileak elkartu ziren aurreko astean. UTZITAKOIA

Martin jubilatutako elkartearen izandako otamenarekin eta familia argaz-

kia atereaz despeditu zuten urterren ospakizuna.

» Altsasu

## GeroaBaik irabazi asmorik gabeko erakundeei laguntza sozialak banatzeko araudi proposamena egin du

Udaleko gainontzeko alderdiekin adostu eta urtero deialdia izatea ziurtatu nahi du

Altsasuko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Batzordeko buru Unai Hualdek irabazteko asmorik gabeko entitateei laguntza sozialak emateko araudi proposamena aurkeztu die beste alderdiei. Laguntzak emateko araudia izanik udalak urtero haiek banatzeko diru kopurua aurrekontuetan zehaztea eta deialdia egitea nahi du Geroa Baik.

Koalizioa beste udal batzuek dituzten araudiak aztertu eta haie-

tan oinarritu da proposamena ontzeko. Eskaerak aurkezteko prozedura, eskaera egiten dutenek aurkeztu beharreko dokumentazioa, laguntzak baloratze irizpideak, haiek ordaintzeko moduak edota laguntzak justifikatzeko erak zehazten dira proposamenean.

### Zergatia

Hainbat urtetan banatu ditu halako laguntzak Altsasuko Udalak, baina arrazoi ekonomikoengatik bertan behera gelditu ziren. Aurtengo aurrekontuetan 3.800 euroko diru-saila aurreikusi da, Gero-

aBaik egindako ekarpen bati esker. Baina laguntza horiek kudeatzeko araudirik ez dagoela azaldu du Hualdek: "aurrerantzean gure herrian euren ekimena garatu ahal izateko laguntza ekonomikoa behar duten irabazteko asmorik gabeko entitateek egindako eskaerei erantzun ahal izateko arauak modu argian markatuko dituzten oinarriak osatzea da helburua".

Egoera ekonomikoagatik kopuru xumeak banatuko badira ere, horiek bermatzea nahi du koalizioak. Aldi berean, araudia udal

talde guztien artean onartzea eta adostea nahi du, "guztien ekarpenekin udazkenean araudi berria indarrean izateko eta aurrekontuetan dagoen partida banatzeko deialdia egiteko".

### Garapenerako lankidetzak

Altsasuko Udalak aurrekontuetan garapenerako lankidetzak proiektuetarako 3.000 euroko laguntza aurreikusia du. Batzorde berean, Geroa Baik Hualdek laguntza emateko euren proposamenak egin ditzaten eskatu die gainontzeko alderdiei.

» Altsasu

## Ulaiarko igurairaren eguna

Domekan ospatuko da Erkudengo Amaren eguna, kantuak dioen moduan ermita txiki batean altsasuarrek duten igurairaren. Hilaren 2an ekarri zuten Ama Birjinaren irudia ermitatik elizara eta 20:00etako mezan bederatzirrena egin dute. Hura despedituta, domekan, altsasuarrek irudia aldean dutela ermitarantz abiatuko dira, 9:30 aldera. Dermioetan barnabidea egin ondoren, 11:00etan meza izanen da ermitan. Hura despedituta, Ama Birjina Erkudengoa abestia kantatuko da.

Urtero moduan, udalak ardoa banatuko du eta ermita inguruan gosaldut egiten dute altsasuarrek. Sasoi berreskuratuta, edo tripazuloa berdinduta, zortziko, jota eta porrusalden txanda izanen da. Lagun talde bat baino gehiago bazkaltzera bilduko da gero.

» Irurtzun



Irurtzun Telebistako kideak.

## Garagarzaroko laborpena iruditan

ITBk bigarren denboraldiko 5. saioa sarean dago ikusgai

www.irurtzuneuskaraz.com blogean dagoeneko ikusgai dago Irurtzun Telebistaren (ITB) saio berri bat. Lorek eta Martinak garagarzaroko Irurtzunen izan diren gertakari garrantzitsuenen bilduma egiten dute 11 minutuan. Horien artean daude Gure Esku Dagoren giza katea, Nafarroako Dantzari Eguna, San Juan suak edota Irurtzongo Gazte Asanbladaren ekimen bat. Irurtzundarrak munduan atala ere ez da saioan faltan. Bi aurkezleak ez dira ados jarri eta bekario bila jarraitzen dute, bakarren batek interesa balu... ITBra zuzendu.

» Etxarri Aranatz

## Beharrezkoa izan ez zen laguntza

Ostiralean tanta hotz batek uholdeak sortu zituen Elizondon eta Erratzun. Aurreneko herria urpean gelditu zen eta makina bat kalte sortu zituen. Kalteak ikusita asko izan ziren laguntzeko prestutasuna azaldu zuten sakandarrak. Etxarri Aranatzko Udala ere autobusa antolatze kotan egon zen, baina larunbatean garbiketa lanak asko aurreratu zirela ikusita azkenik auzolan zabal hori bertan behera uztea erabaki zen.



Zelandi eskolan dute goizero hitzordua Udan Euskarazko parte-hartzaileek.

# 292 udan euskaraz

Udalaren aisialdi programaren bidez, garileko astegun goizak jardueraz beteak dituzte haurrak eta gaztetxoak

Pasa den urtean baino 53 haur gehiago daude izena emanda Udan Euskaraz programan, 292 guztira. Txikienak, 3 eta 4 urte bitartekoak ludotekan biltzen dira astegun goizero eta 4 eta 12 urte bitarteko gainontzekoak, berriz, Zelandi eskola publikoan. 9:45etik 12:45era euskarazko aisialdi programare-

kin gozatzeko aukera izaten dute guztiek. Baina ez denak elkarrekin, adinka 9 taldeetan banatuta baitaude. Hala ere, talde batzuk oso handiak direnez, bi gela hartzen dituzte Zelandin.

Garileko aisialdi programan 25 begirale ari dira lanean. Garagarriaren 25ean hasi ziren Udan Euskarazko ekitaldiak prestatzen eta hilaren akaberan programa despeditzearekin batera

bukatuko dute lana. Haiek 9.30etatik 13:30etara ari dira lanean. Programatu dituzten jardueren artean 292 parte-hartzaileak ariko diren San Fermin festa, mozorro festa, pintxo lehiaketa eta azkeneko festa daude. Gainera, txikitxoak izan ezik, adin talde bakoitzak irteera bat izanen du. Horien artean daude: Urbasa abentura parkea, Etxeberriko esnearen interpretazio zen-

troa, Zumaia eta Leitzako Peruharri museoa.

### Agorrilean

Heldu den hilabeteko hamabostaldi bakoitzerako eskaintza ere egin zuen Altsasuko Udalak eta Joxepi Markinez ludotekariak jakinarazi digunez, erantzuna oso ona izan da eta bi deialdiak bete egin dira. Agorrilaren 1etik 14ra 35 haur egonen dira eta 18tik 29ra 34. Guztia ere 4 eta 10 urte bitartekoak. Txanda bakoitzean hiruna begirale ariko dira lanean. Ludoteka izanen dute bilgune.

## » Lakuntza

# Plazako lanak agorrila erdialderako despedituta

Lakuntzako plaza pixkanaka itxura hartzen ari da. Markesina edota farola berriak dagoeneko jarriak daude. Falta diren gainontzeko elementu guztiak jartzeko lanean ari dira Texsa enpresako langileak. Agorrileko aurreneko hamabostaldian despeditu nahi ditu lanak enpresak.

Jose Ramon Garin alkateak esan digunez, lanei ekitean Lakuntzako Udalaren asmoa zen ahalik eta lan gehien herrian uztea, horregatik udalaren eta eraikuntza enpresaren artean hori hitzartu zuten. Garinek azaldu digunez, Texsa eta Lakuntzako hainbat enpresa prezioetan akordiora iritsi dira eta lan asko eta asko herrian bertan egiten ari dira. Esaterako, farolak eta burdin lan guztiak Bargak egin ditu, Laku-

## Aurrekontua

240.732,81 eurokoa (BEZ kanpo) da. Udalak lanak egiteko 115.934 euro jarri beharko ditu. Nafarroako Gobernuak 201.576 euroko diru-laguntza eman du eta Mank-en 6.650 euroko beste bat (ur azpiegiturarako lanengatik). Udalak 20.000 euro markesina berriak egiteko bideratu ditu.

matek zurgindegiaz arduratu da eta Lakuntza Elektrizitatea argindarrak. Garinek esan digunez, "gure asmoa bete da eta, horregatik, udalean pozik gaude. Gainera, bertako enpresak herriarendako lan egiten ari direla sentitzen dutela uste dugu".

Plazako farolek diseinu berezia

dute, festetan estalpea sortzeko jarriko den toldoari eutsiko diotela. Diseinu berezia dute, toldoak izanen dituen isuriei behar bezala eusteko. Toldo berria mustuko da festetan.

## Ondoren

Lanak despeditzean, eliza eta iturria bitartean, plaza eta ondoko kaleak bat eginen duten oinezkoendako espazioa sortuko da. Hala ere, auzokideek euren ibilgailuekin sartzeko aukera izanen dute puntualki. Plaza gurutzatzen duen Mikel Arregi kalea tarte horretan jaso eginen da, ibilgailuek abiadura mantsotu dezaten. Plazako zoladura berritzearekin batera, sareak berri dira. Gainera, argiteria publikoko, telefono eta argindar sareak lurperatu dituzte.



Markesina berriaren atzean farolak, festetan toldoa eusteko balioko dutenak.



## Zinema irailean erabilgarri nahi du udalak

Lakuntzako Udalak bere gain hartu du zinemako lanak despeditzeko ardura, Espainiako Gobernuak inbertsio guztiak geldiarazi ondoren. Horregatik, aurtengo aurrekontuan 100.000 euroko diru-saila prestatu zuen udalak. Kisusgilea eta peoia kontratatu zituzten falta ziren lanak egiteko. Horiak despeditu dituzte eta lakuntzarrak auzolanez margo lanak eta beste egiten ari dira.

Jose Ramon Garin alkateak jakinarazi digunez, udalaren asmoa da iraileko musika eskola eta jubilatuen elkar-teraren egoitza han kokatuta egotea. Bestalde, kultur talde bat sortzeko asmoa dagoela azaldu digu alkateak. Haren egitekoa kultur-guneari mugimendua ematea izanen da. Ideiak badaudela eta jendea antolatzen hasiko dela espero duela uste du Garinek.

## Sarrarte industrialderako sarrera zabaltzeko lanak

### Sakana kooperatibak eskatuta errepidea bikoizteko lanak hasi dira aste honetan.

Fundiziora sartu edo ateratzeko hegoaldean dagoen atea erabiltzen da gaur egun, baina arazoak sortzen ditu. Sarrera-irteera errazteko mendebaldera aldatu nahi du atea kooperatibak. Horregatik, industrialdera sartzeko bideguru-



tzean errepidea bikoizteko lanak hasi dira aste honetan. Plazako

lanak egiten ari den Texsa enpresa ari da lanak egiten. Garai bate-

ko dantzalekuko aparkalekuko zati bat hartuko dute lanak. Behin despedituta argiteria ere jarriko da.

Udala da lanen sustatzailea, enpresak lizentzietan aurrezteko. Baina lan guztia kooperatibak ordainduko du. Mantenua udalaren ardura izanen da. Lanak bi hilabetetan despedituko dituztela espero da.

## Txikiendako euskarazko aisialdi eskaintza

Hilaren hasieratik akaberara, astegun goizetan Lakuntzako ludoteka martxan da, udalak sustatuta. 3 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako eskaintza horretara 37 txikik eman dute izena. Astegunetan 10:00etan elkartzen dira eskolan. 13:00ak bitartean makina bat jardueretan parte hartzen dute. Gainera, astean behin, txango bat egiten dute, igerilekura joaten dira eta beste egun batean sormena lantzen dute. Euskaraz egiteko jolaslekuaz lau begirale arduratzen dira.



Udako ludotekara oso gustura doaz haurrak.

**Sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

**TxikiTxo**  
haurren arropa eta lentzeria

**2x1**

948 4673 08  
Ferialeku 2 · ALTSASU

**LARRAZA**  
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

**Jose Larraza Legarra**  
Etxebizitza administratzailea  
Kolegiatu zenbakia: 378

Bizilagunen komunitateak  
Etxebizitza administrazioa

Etxaburua kalea, 1 beheko solairua  
31013 Berriozar  
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634  
Jose.larraza@gmail.com

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

# FESTAK

## Irurtzun:

### >> Garilak 16, asteazkena

**17:00etan** Festetako kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, udaletxean.  
**17:30etan** 2013an sortutako haurrei zapiak eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren liburua emanen zaizkie.  
**18:00etan** Txupinazoa. Kalejira eta emanaldia: Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, gaitariak, Orritz dantza taldea eta Tututxiki txaranga.  
**20:00etan** Orritz dantza taldearen ermanaldia.  
**21:00etan** Dantzaldia, txarangak eta gaitariak emana. Jauziak.  
**22:00etan** Larrain dantza.  
**22:25ean** Zezensuzkoa eta buruhandiak, Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.  
**00:00etatik 4:00etara** Dantzaldia Sukar taldearekin.

### >> Garilak 17, osteguna

**10:00etan** Dianak, fanfarrea.  
**11:00etatik 12:30era** Haurrendako margotze lehiaketa plazan.  
**12:00etatik 13:00etara** Haurrendako eta familiendako parkea.  
**13:00** Musika eskolako fanfarrea.  
**13:30etik 14:30era** Apar festa.  
**17:00etan** Gorputza margotzea. Irurtzongo margotze gela. Plazan.  
**17:00etatik 20:00etara** Haurrendako eta familiendako parkea.  
**19:30ean** Haurrendako txokolate jatea



### Barazki gunea 2014

#### >> Garilak 16, asteazkena

**13:00etan** Gunearen irekiera txalaparta eta trikitixarekin.

#### >> Garilak 17, osteguna

**14:30ean** Gazte bazkaria, ondoren bajeetatik erronda gudi musikalarekin.  
**19:00etan** Ginkana.  
**23:00etan** kontzertua: Txep eta lagunak. Ondoren Eder Pardo eta Gordon dj-ak.  
**3:00etan** IV. txapel jaurtiketa lehiaketa. Dantzaldia bukatzean, txoznetan.

(zeliakoendako ere).

**20:30ean** Haurrendako eta familiendako dantzaldia Menua Banda taldearekin.  
**22:00etan** Larrain dantza.  
**22:25ean** Zezensuzkoa eta buruhandiak, Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.  
**23:30etik 3:00etara** Janna diskomobila.

## Iturmendi:



### >> Garilak 16, asteazkena.

**Karmengo ama**  
**12:00etan** Festen hasierako etxajua.  
**12:00etan** Meza.  
**12:30ean** Koadrilen arteko desafioak (IGA).  
**17:00etan** Haurrendako puzgarriak.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Amets taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa  
**22:00etan** Emakumeen afaria frontoian.  
**00:00etatik 3:00etara** Dantzaldia Amets taldearekin.

### >> Garilak 17, osteguna.

**Helduen eguna**  
**12:00etan** Meza.  
**13:00etan** Toka txapelketa (jubilatuek antolatua).  
 Txistulari eta dantzariak.  
**14:00etan** Jubilatuen bazkaria, Aritzagan.  
**14:30ean** Herri bazkaria, kalderete lehia, mozzoraturik.  
**17:00etan** Janari bilketa, Sakaranga txarangarekin (IGA).  
**18:00etan** Aldasoroen animaliak.

### Iturmendiko Gazte Asanbladaren egitaraua

>> **Garilak 16, asteazkena**  
**12:30ean** Koadrilen arteko desafioak.

#### >> Garilak 17, osteguna

**15:00etan** Bazkaria. Kalderete lehiaketa, mozzoraturik. Ondoren, txarangarekin etxex etxe janaria eskatuz.

Festetan zehar Ximona Gaztetxea taberna bezala irekiko dute, goiz, arratsalde eta gau. Fritoak, prezio herrikoiak eta giro paregabea!

**20:00etatik 22:00etara** L-Bitan dj-arekin dantzaldia.

**00:00etatik 3:00etara** L-Bitan dj-arekin dantzaldia.

Egunero goiz eta arratsalde zuzendutako auzatea Arranobeltza plazan

## >> Irurtzun

# Sexu erasoak, festetan ere soberan

**Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Prebentzio programak Irurtzongo Udalarekin batera festetan sexu erasoak ekiditeko kanpaina martxan jarriko du**

Festetan emakumezkoen eta gizonezkoen artean errespetua bulkatzeko asmoz kanpaina martxan jarri du Irurtzun aldeko Oinarrizko gizarte Zerbitzuen prebentzio programak udalarekin batera. Gazteen arteko harremanak berdintasunean oinarritu behar direla sustatu nahi dute kanpainako bultzatzaileek. Aldi berean, mezu argia ere zabaldu nahi dute: festetan ematen den "gehiegizko kontsumoak ez duela inondik inora ere jarrera sexistarik justifikatzen".

Kanpainako mezuak zabaltzeko hainbat bide erabiliko dituzte prebentzio programak eta udalak. Alde batetik, taberna eta elkarreetan jarrera sexistarik onartzen ez dela ohartarazten duten kartelak jarriko dira. Udaletxean, berriz, *festak errespetutik disfrutatu* leloa duen pankarta jarriko da. Bestelako karteletan honakoa irakurtzeko aukera izanen da: errespetua eta berdintasuna abiapuntu, eta festa hauetan denok goza dezagun.



Udaletxean jarriko den pankartaren leloa.

Aldi berean, taberna, elkarte, txosna eta bajeetan esku-orriak eta txapak banatuko dituzte. Azken horietan *ez ezetz da* esaldia irakurgai izanen da. Esku-orrietan, azkenik, erasorik gabeko festak gozamen handiko festak direla adieraziko da. Aldi berean, aitzakia alkohol edo droga kontsumoa bada ere sexu erasorik ez onartzeko eskatzen da. Gainera, jarrera sexistak ez onartzeko ardura denena dela gogorarazten da. Azken batean, festetan inorekin pasa gabe ongi pasatzeko gonbitea luzatzen dute.

### Festetako argazki dibertigarrienaren bila

Horretara gonbidatu dituzte Irurtzun Telebistako (ITB) Martina eta Lore aurkezleek irurtzundarrak. Parte hartu nahi dutenek euren argazkiak ITBko facebook bidez zabalduko dituzte. Atsegin dut gehien biltzenden argazkiaren egileak saria jasoko du. Hilaren 27ra arte parte hartu ahalko da. Sari banaketa agorriaren 3an izanen dela esan dute Martinak eta Lorek ITBren azken saioan.

## >> Altsasu

# Uda Gazte programan izena emateko aukera dago oraindik



Gazte 2 Asteren barruan antolatutako tailerra. ARTXIBOA

**12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza hilaren azken bi astetan egingen da**

Altsasuko Udaleko Gazteria sailak Uda Gazte programa eskaini du estreinako zaurten. Blanki Torres gazteria teknikariak azaldu digu

nez, "eskaera bati erantzunez" sortu da Uda Gazte. Torresek esan digunez, Udan Euskaraz programaren jarraipena da eskaintza berria, 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Oraindik ere izena emateko aukera dago.

### Izena ematea

Gazte gunetik pasa edo hara deitu daiteke, 948 564 785 telefonora. Bestela, idatziz gazteria@altsasu.net helbidera jo.

### Intxostiapunta

Udan gazte gunek ordutegia aldatuko du eta astegunetan 18:00etatik 20:00etara dago zabalik.

Astelehenean hasi eta hilaren 26ra arte, bi aste iraupena izanen du programak. 10:00etatik 13:00etara bilduko dira astegunetan, Intxostiapunta gazte gunean. Gazteek lagunekin hainbat ekintzez gozatzeko aukera paregabea: kirola, abenturazko jarduerak eta gaur-pasa. Jardueren artean Dantzalekunen egindako kanpaldia dago, gau bainua eta guzti duena.

## >> Uharte Arakil

# Gau ur festa igerilekuan

**Garilaren 15ean, asteartean, 21:00etatik aurrera**

Gazteei zabalduko zaie heldu den asteartean Uharte Arakilgo Itxeria igerilekua. Ur festara gonbidatuak daude. 21:00etan afaltzeko ogitartekoa eta freskagarria izanen dute 3 euroren truke. 22:00etatik aurrera ur jokoak izanen dituzte

te eta ordu erdi geroago igerilekuan bainua hartzeko aukera izanen dute gazteek.

Sakanako Gozamenek Koordinakundeak antolatu du ur festa gozoa. Sexualitateari buruzko hausnarketa eta arlo ezberdinen inguruko eztabaida sustatzea helburu du programak.

## >> Altsasu

# Gazteendako gau festa igerilekuan

Sakanako Gozamenek Batzordeak antolatu dituen ur festa goxoetan heldu den ostegunetan Altsasuren txanda izanen da. Sexualitatearen ikuspegi positiboa, errespetuzkoa, plurala eta aberasgarria eskaini asmoz, 21:00etatik gauerdia dantzalekuko igerilekura joaten diren gazteak bainuaz eta ur joko-

ez gozatzeko aukera izanen dute. 22:00etan ogitartekoa eta edaria 3 euroren truke eskuratzeko aukera izanen dute.

Musika ez da faltako ur festa goxoan. 22:30ean Intxostiapunta batukada tailerraren erakustaldia izanen da. Behar bereziak dituzten gazteek osatzen dute per-

kusio taldea. Haiak bukatu ondoren, Oskar Estanga eta Jon Martin bat-batean bertsotan ariko dira musikaren laguntzaz. Doinuak Josu Erbitik (bateria), Manex Albirak (baxua) eta Jorge Cordonek (teklatura) joko dituzte. 23:30ean bertaraturakoek edabe erotikokoak dastatzeko aukera ere izanen dute.



## » Iturmendi

# Kurtso berriarekin eskola berria



Kanpoko urbanizazio lanak besterik ez dira falta eskola berriko lanak despeditzeko.

Inserlantxo enpresako langileei Iturmendiko eskola berriko kanpoko urbanizazio lanak egitea besterik ez zaie falta. Eskola berriko lanak, bestela despedituak daude. Altzariak dagoeneko ikastetxean daude. Vitoriano Gabirondo alkateak esan digunez, kurtso berria han hasiko dute ikasleek.

Eskola berriak 450 metro karratuko azalera du. Espazio hori honela banatu dute: bi ikasgela handi eta beste bi txiki (haietako bat informatikakoa); erabilera antzeko ikasgela bat, ezkaratza, zuzendaritza, bainugelak eta trastelekua eta kanpoaldeko estalpea. Pellet bidezko berogailuak bertuko du ikastetxea.

## Bidea

Ikasturtea hasten denean Iturmendiko haurrak eskolara oinez, bizikletan edo autoz joan dira. Horretarako, Estafeta kaletik (Bakaikurako errepidetik) 210 metro ibili beharko dituzte, eskola dagoen Txoritai kalera iristeko. Tarte guztian ez dago espaloirik.

Eliza eta eskola arteko eremua-

## Eskola zaharra



Ikasleek uzten duten eraikinarekin zer egin erabaki beharko du Iturmendiko Udalak. Eta Gabirondok esan digunez, hautagairik ez da falta. Mediku kontsultategia Estafeta kaletik herri erdira aldatzea da aukeretakoa bat. Nafarroako Gobernuak baimendu egin beharko luke eta gero udalak egokitzapen lanak egin beharko lituzke. Jubilatuek haiendako egoitza eskatu dute. Eta ikasturtean zehar pilates eta bestelako soin ariketak egiten dituztenek ere euren jarduerak hartzeko toki aparta litzatekeela uste dute. Eta sortu litezkeen gainontzeko erabilerekin artean aukeratu beharko du udalak.

ren urbanizazio proiektua onartu du udalak. Gabirondok esan digunez, etxerik saltzen ez den garai honetan udalaren asmoa ez da orain hura garatzea, ezta kalea egitea ere. Proiektuan oinarrituta, udalaren nahia da lehenbailehen

eliza eta eskola artean, kalea aurreikusia dagoen tokian, dermioko bideen moduko bat egitea da, hurren segurtasunagatik eta halako buelta handirik ez emateko. Baina hura egiterako ikasturtea hasia izanen dela esan digu alkateak.

## »

# Eskola, aurrekontuko inbertsio handiena

**Iturmendiko Udalaren aurtengo 440.000 euroko aurrekontutik 210.000 eskola berria egiteko bideratu du udalak**

Eskolako lanek 410.000 euroko (BEZ barne) aurrekontua izan dute, hiru urteetan pagatu direnak. Aurten zati handiena ordaindu da, 210.000 euro. Iturmendiko Udalak eta Hezkuntza Departamentuak egindako hitzarmen baten bidez zehaztu zen ikastetxearen obraren finantzazioa: udalak dirua aurreratuko zuen eta departamentuak gero udalari ordainduko zion.

Finantza krisiak tokiko administrazioei ekarri dien ondorioetako



Mediku kontsultategi gaineko pisua konpondu eta alokatu nahiko luke udalak.

bat da diru gutxiago dutela ezeregitako. Bestea, Espainiako Gobernuaren aurrekontu egonkortasun legea eta defizit publiko murrizteko neurriak. Dagoenarekin moldatzen ari dira udal gehienak ibarrean. Iturmendiko Udalak eskola berriko lanak pagatzea bideratu ditu bere ahaleginak eta departamentutik kobratzen duenean bestelako batzuk egiteko aukera izanen du.

## Pisua

Iturmendiko mediku kontsultategiaren gainean garai bateko sendagilearen etxea dago. Eraikinak 39

bat urte ditu eta Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo udalena da. Erdia Iturmendirena da eta beste erdia beste bi udalena. Vitoriano Gabirondo alkateak jakinarazi digunez, beste bi udalei euren zatia katastroko prezioan erosi nahi die. Behin bere eskutan izanda udalak etxebizitza konpondu, bitan banatu, bi pisu sortu eta haiek alokatzeko asmoa du. 60.000 euroko inbertsioa litzateke. Bestalde, udalak aurtengorako aurreikusiak dituen lan txikien artean dago hilerriko horma-hobieie teiltua jaritzea, euria sartzea eragozteko.

## » Bakaiku

# Markesina bidaiariaren kasua



Markesina erdi eginda utzi zuten larunbatean.

Normalean autobusak dira bate-tik bestera joaten direnak eta markesinak beti toki berean gelditzen direnak. Ez da, ordea, hau kasua. Lakuntzako plaza berritzeko lanengatik autobus geltokia tokiz

mugitu eta aldatu behar zuten.

Bakaikun aspaldiko asmoa zen herrian markesina bat jartzea. Bi herrietako udalak ados jarri eta hainbat bakaikuar Lakuntzara joan ziren, markesina desmunta-

tzera. Teilak eta egurrezko egiturak Bakaikura eramane zituzten. Porlanez zorua egin ondoren, asteburuan, auzolanean jaso dituzte bakaikuarrek markesinako partak. Gainontzekoa ere auzolanean jasoko dutela esan digu Aner Galartza zinegotziak. Lanik handienak festetarako despedituak izatea espero du.

## Paseatzaileendako aulkiak

Bakaikuko Udalak paseatzen ari den jendeak bide bazterrean atsedan har dezan aulkiak jarri ditu. Dermioaren iparraldean, Etxarri-joateko Oporoko pistaren ertzean daude aulkietako batzuk. Hegoaldean, Iturmendira joateko Txoritai pista bazterrean izanen dira. Beste pistaren baten ertzean bakarren bat gehiago jartzea ez du baztertzen Galartza zinegotziak.

## SAKANA

## AEK-ko irakasleen adierazpena

AEK-ko irakasleek, banaka-banaka, egunero euskaltegira eramaten dituen indarra azaltzen hasi dira, banaka, [www.aek.org/blogak/nafarroa/hel-](http://www.aek.org/blogak/nafarroa/hel-)

bidean. Aurreratik egin duten adierazpen bateratuan Nafarroako AEK-ko irakasleek esan dute haien indarra ikasleak direla: "euskara erabiltzen duzuela ikusten dugunean, euskaraz bizi zaretela ohartzean, oso harro eta alai sentitzen gara".

**PPSOE,**

**ETB**

**digitala**

**Nafarroan**

**orain!**

**Berria erosi taldea**

**GANUZA**

**SUKALDEAK**

**Sukalderako altzariak**

**Bainu gelako altzariak**

**Horma armairuak**

**Etxetresna elektrikoak**

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673

c.ganuza@cocinasganuza.com

www.cocinasganuza.com

Etxarriko industrialdea

ETXARRI ARANATZ

# Arkeologoak Zamartzeko aterpean

Azken asteko euriek Zamartzen dauden nazioarteko arkeologoen lana moteldu dute

Garagarzaro hasieratik iraila akaber bitartean arkeologoak Zamartzen lanean ariko dira, erromatarren gunean eta Erdi Aroko hilerrian. Arkeologi indusketen bosgarren kanpaina da aurten. Aurreko urteetako lanaren ondorioz, arkeologoen arreta eta kontu handiagoz aritu beharra dute. Horregatik, aurten soilik 20 arkeologo ikasle ariko dira Uharteko indusketan.

Aditu arkeologia zerbitzuak enpresako Fran Valle de Tarazaga Montero (indusketa eta iker-



Egurdiagatik ezin da indusketarik egin Uharte Arakilen.

keta arduraduna, erromatar gunean ariko da) eta Emma Bonthorne dira (osteoarkeologoa, hezurduren arduraduna, hilerrian ariko da), atzera ere, indusketako arduradunak. Franek esan digunez, aurten aurreko urteetan baino lehenago hasi dira industen, "lau kanpainen ondoren indusketa ondorengo lana handiagoa da eta txostenak eta bestelakoak prestatzeko denbora gehiago behar dugu".

## Boluntarioak

Indusketan boluntario lana egin nahi duenak [info@aditu.info](mailto:info@aditu.info) helbidera idatzi behar du.

## Ikasleak

Arkeologia ikasleak AEBtik, Erresuma Batutik edo Kanadatik etorriko dira. Pasa den urteko ikasle onek indusketan errepikatzen aukera dute, taldeko kide gisa parte hartuz. Pasa den urtean hala aritu ziren lau ikasle. Aurten beste lau ikasle errepikatuko dute.

## Bisita gidatuak

Larunbatero, 11:00etan, indusketara bisita gidatuak izanen dira. Talde edo erakunderen batek beste egunen batean bisita antolatu nahi badu [info@aditu.info](mailto:info@aditu.info) e-postara zuzendu dezala eskaera.



## Erdi Aroko hilerria

Pasa den urtean hilerriaren lehen garaietara iritsi ziren arkeologoak. Franek esan digunez, "orain lana arduratsua eta zorrotza izanen da. Hilerriko aurreko garaiko lurperatzeak harrizko egiturarik gabeko hobian egin ziren. Hezurdura lurretik ateratzean informazioa eman dezaketen elementu gutxiago daude. Gainera, monasterioaren jatorriari buruzko gure informazio iturri bakarra da". Arkeologoak hilerrian bertikalean lanean jarraituko dute lehen etapen berri zehatzagoa lortu asmoz, eta mailen jarraipena ulertu asmoz.

Izan ere, pasa den urtean arkeologoen egiaztatu zuten aurreko hilobiak erromatarren mailan zutatu zirela. Hala ere, erromatarren garaitik Zamartzen giza presentzia etengabea izan ote den arkeologoen ezin izan dute ziurtatu. "Hala ere, ondorioak ateratzeko goizteregi da", esan digu Franek.



Arkeologoen esanetan, monasterioaren jatorriari buruzko informazio iturri bakarra da hilerria.

Opatutako hezurduren arreak oso pobreak dira eta gehienek

ez dute identifikatu dituen elementurik edo hilobiratze data argi-

tuko duenik. Hala ere, indusketan zehar agertu diren Erdi Aroko

elementuek hilerrian dauden pertsonen inguruko informazio pixka bat ematen dutela dio Franek. "Gerriko mihi dekoratuak eta ezproi urrezatuak Zamartze nobleendako edo zaldunendako lurperatze toki zela erakusten digute. Erromesen maskor eta pordoiak Zamartzek Donejakue bideko ospitale gisa zuen garrantziaren berri ematen dute", esan digu Franek.

Adituko arkeologoak esan digunez, indusketa fasea despeditzean hezurduren laborategiko ikerketa kimikoari ekinen diote. Hori egin ahal izateko analisi estrategia zehazten ari dira gaur egun arkeologoak. Hori "prozedura oso garestia eta delikatua" dela esan digu Franek, eta gaineratu du "aurten hilobiratze maila goiztiarretan arikogarenez, analisiak egiten azkar hastea espero dugu". Bitartean izan zituzten osasun arazoaren inguruko berriak jaso dituzte.



## Erromatar gunea

Arkeologoen helburu zehatz batekin zabalduko dute indusketa eremua: aztarnategiko tokien arteko espazioak murriztu eta, aldi berean, kokalekuaren hirigintza hobeto ezagutzeko eta aurreko indusketa kanpainen agertu diren horma eta eremu batzuk hobeto ulertzeko. Monasterioko belardiaren iparraldean 50 metro karratu edo zabalduko dute. "Eremu oso interesgarria da eta aitzinako Sakanari buruzko informazio asko emanen digula espero

dugu", azaldu digu Franek.

Arkeologoen aurreko urteetako lanak ziurtatu du I eta IV. mendeen artean Zamartzen presentzia jarraitua izan zela. Baina ez dakite erromatarrek kokalekua utzi ote zuten. "VI. eta X. mendeen arteko garaian aztarnategiaren aldi iluna deitzen diogu, gutxien dakigun garaia delako. Espero dezagun hilobiratzearen lehen mailek garai ilun hori gehiago mugatzen laguntzea".

**ERBITIK GALTZADARRIEI EUTSI DIE:** Asteazkeneko galtzadarrien etapak Tourra hantzen gora jarri zuen. Nibalik ongi eutsi zuen, baina Froome etxera joan zen eta Valverde

eta Contadorrek denbora galdu zuten. Imanol Erbitik etapa bukatzea lortu zuen eta Valverde laguntzeko lanetan jarraitzen du.

## Mendi lasterketak



### Fidel Jimenez 25.a Goierri Garaian

Larunbatean VII. Goierri Garaian mendiko lasterketa jokatu zen Urretxu-Zumarragan, 22 kilometroko proba. 118 korrikalari iritsi ziren helmugara, Aritz Egea (1:47:51) eta Sandra Sevillano (2:14:56) buru zirela. Sakana Bizirik taldeko Fidel Jimenez etxarriarra 25.a izan zen (2:10:47).

#### EHUNMILEI BEGIRA

Asteburuan Ehunmilak ultratraila (168km, 11.000 m desnibel +) eta G2 Handiak ultratraila (88 km, 6.000 m desnibel +) jokatu dira Beasainen. Lehen proban izena eman duten 295 korrikalariak ostiralean 18:00etan abiatuko dira, eta bigarrenean ariko diren 362 korrikalariak 5 ordu beranduago, 23:00etan. Aipatu proba luze eta gogorretan korrikalari sakandarrak arituko dira.

## Pilota

### San Migel Txapelketan 5 partida jokoa

Ostiralean hiru partida eta larunbatean bi hartuko ditu Olaztiko pilotalekuak

Olaztiko Sutegi klubak eta San Migel elkarteak antolatutako 43. San Migel Pilota Txapelketaren barruan, asteburuan 5 pilota partida jokatu dira Olaztin.

#### Asteburuko partidak

**Ostiralean, 21:00etan**

**3.maila (finalerdia):** Victor-Luis / Ondatz-Unai

**2.maila (lau t'erdian):** Pablo-Beñat / Sarazibar-Bazkez

**22 urtez azipikoa (finalerdia):** Mendi-Iturriaga / Zaldúa-Mariezkurrena

**Larunbatean, 18:00etan**

**2.maila (lau t'erdian):** Migel-Iñaki / Besga-Borrega

**1.maila (lau t'erdian):** Iurgi-Javier / Javi-Aies

## Frontenis

# Baditugu txapelkunak

LAURA-LEIREK ETA EDURNE-VANESAK IRABAZI DUTE SAKANAKO EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA

Finalen emaitzak

**2. maila**

Ane-Uxue **27** / Laura-Leire **30**

**1. maila**

Edurne-Vanesa **30** / Yanira-Saioa **19**

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarri Aranazko Gure Pilota klubarekin antolatutako Sakanako Emakumeen VII. Frontenis Txapelketan

8 bikote lehiatu dira, 4 bikote bigarren mailan eta beste 4 lehen mailan. Hasierako ligaxka jokatu eta gero, finalerdien txanda iritsi zen, eta ostiralean final handiak jokatu ziren Etxarri Aranazko Euskalerrinari pilotalekuan. Partida lehiatu eta ikusgarriak jokatu ziren eta giro paregabea izan zen. Final oso estuan, bigar-



Emakumeen Frontenis Txapelketako finalistak. UTZITAKOIA

ren mailako txapelkunak Laura eta Leire izan dira eta lehen

mailakoak, alde gehiagorekin, Edurne eta Vanesa.

## Pilota

# Txapela ia ukitu zuen Ezkurdiak, baina Aimarrek jantzi zuen

Nahiz eta Ezkurdia 2-7 aurreratu, goizuetarrak irabazi du sanferminetako lau t'erdiko txapela (22-11). Hala ere, partida ikusgarria jokatu zuen arbizuarrek

Labrit pilotalekua beteta eta sekulako giroarekin jokatu zen sanferminetako lau t'erdiko finala. Joseba Ezkurdia eta Aimar Olaizola txalo zaparrada artean atera ziren kantzara. Hasieratik apustuak Olaizolaren aldekoak izan ziren, baina goizuetarrak lan handia egin behar izan zuen txapela jantzeko. Izan ere, sekulako gogoekin eta oso fin atera zen kantzara Ezkurdia. Pilotazaleen gozamerako bikain aritu zen, eta lehen txanpan jaun eta jabe izan zen, 2-7 aurreratuz. Txapela jantzeko aukerak bazituela uste zuen arbizuarrek, eta lehen txanpa horretan nagusi izan zen. Deseroso ibi-



Ezkurdia eta Olaizola, sanferminetako lau t'erdiko trofeoekin.

li zen, aldiz, Olaizola.

Tamalez, horrenbeste lanarekin lortutakoa desegin zuen Aimarrek. Takada batean zarpira berdindu zuen goizuetarrak, eta nahiz eta Ezkurdia 7-9 aurreratu, beste bolada batean 11-9 aurreratu zen Olaizola. Ezkurdiak eutsi

zuen, 12-11, baina lehia oso estuan tantoak bata bestearen atzetik egin zituen Aimarrek, 10 jarraian eta, bukaeran, 22-11 irabazi zuen. Laugarren txapela jantzi zuen, baina asko kostatuko garaipena izan zen Olaizolarena, Ezkurdia bikain aritu zelako.

### Binakakoan hobe doakie Zabaleta-Retegi Biri Ezkurdia-Barriolari baino

Sanferminetako Binakako Torneoan, Retebi Biketa Jose Javier Zabaletak 14 tantotan utzi zituzten Idoate eta Albisu, partida gogor, lehiatu eta ikusgarrian. Aldiz, tanto baten aldeagatik ihes egin zitzaizen garaipenak Joseba Zabaleta eta Abel Barriolari, 22-21 galdu baitzuten Xala eta Rezustaren kontra. Gaur, ostiralean, Ezkurdia-Barriolak Berasaluze II.a-Beroiz izango dituzte aurkari (22:15ean, ETB1). Retebi Bik eta Zabaletak larunbatean jokatuko dute, 17:00etan, Aimar Olaizolaren eta Ladis Galarzaren kontra. Multzo bakoitzeko biko onenak astelehenean jokatuko den Binakako final handirako sailkatuko dira. (22:15ean, ETB1).

## Trontza

# Andra Mariko bi biko Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketan



Aurreko urteko txapelkunak eta finalistak, tartean Andra Marikoak.

Xabier Basabe-Adrian Joak eta Asier Jaka-Joseba Galarzak ordezkaturako dute Etxarri Aranazko Andra Mari ikastola. Gaur, ostiralean, 12:00etan, Foru Plazan

Sanferminetako herri kirol jaialdian barruan, gaur trontza izango da protagonista Iruñean. Eguerdian Foru Plazan hasiko den jaial-

dian, lehenik eta behin Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa jokatuko da.

Guztira 4 bikote lehiatuko dira, bi Andra Mari ikastolakoak eta beste bi Basaburua-Baztaneakoak. Andra Mari ikastolako ordezkariak Xabier Basabe-Adrian Joak eta Asier Jaka-Joseba Galarza izango dira. 100 zentimetroko enborrari 10 epai edo mozketa egin beharko dizkiote lau bikoek.

**Proba konbinatua eta aizkora** Ondoren, herri kirolen proba konbinatuaren erakustaldia egingo dute kimuen mailako 4 taldek:

### Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa. Trontzalariak:

Xabier Basabe eta Adrian Joak (Andra Mari)  
Asier Jaka eta Joseba Galarza (Andra Mari)  
Eneko Irigoien eta Andoni Galarregi (Basaburua-Baztan)  
Antton Irigoien eta Iker Aleman (Basaburua-Baztan)

Andra Mari ikastola, Araxes, Iri-sarri eta Ultzama. Segidan, aizkora erakustaldia eskainiko dute Juanjo Erdozia etxarriarrak, Aitor Senosiainek eta Mieltxo Míndegiak. Eta, bukatzeko, haurrei zuzendutako proba herrikoia prestatuko dute.

## Txirrindularitza

# Maialen, brontzezkoa Espainian...

ESPAINIAKO TXAPELKETETAKO EMAKUMEZKOEN KADETE MAILAKO LASTERKETAN HIRUGARRENA SAILKATU ZEN ITURMENDIARRA

Asteburuan eskola eta kadete mailako Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira Jaenen. Nafarroako selekzioan hainbat sakandar lehiatu dira.

Kadeteen emakumezkoen lasterketa (50,36 km) esprintean erabaki zen eta Sandra Alonso balentziarra izan zen lehena, Irene Trabazo galiarraren eta Maialen Aramendia iturmendiarraren aurretik. Brontzezko domina lortu zuen Nafarroako txapelduna den iturmendia-

rrak, aurten daraman ibilbide bikaina borobilduz. Taldeka, Valentzia izan zen garailea (34 puntu) eta Nafarroa bigarrena (33 puntu). Aipatzen da, kadeteen emakumezkoen erlojupekoan Nafarroa izan zela txapelduna.

Gizonezkoen kadeteen proban Gaztela eta Leongo Pablo Velazquez izan zen garailea. Aralar taldeko Gorka Arbizu 17.a sailkatu zen. Taldeka, Katalunia izan zen txapelduna (22 puntu) eta Nafarroa 6.a (55 puntu). Kadeteen gizonezkoen erlojupekoan Kataluniak irabazi zuen txapelketa eta Nafarroa 9.a sailkatu zen.



Maialen Aramendia brontzezko dominarekin, eskuinean. UTZITAKOIA

rroa 6.a (55 puntu). Kadeteen gizonezkoen erlojupekoan Kataluniak irabazi zuen txapelketa eta Nafarroa 9.a sailkatu zen.

## Haurren maila

Haurren mailako emakumezkoen lasterketan, Euskadiko Saioa Gil izan zen azkarrena (19:24). Leire

Maiza 31.a izan zen eta Bakarne Gonzalez 33.a. Euskadi izan zen talde onena, eta Nafarroa 9.a. Eta haurren mailako gizonezkoen lasterketan, Carlos Linares balentziarra irabazi zuen proba. Iosu Etxeberria 9.a izan zen helmugan eta Ailetz Lasa 19.a. Katalunia izan zen talde onena, eta Nafarroa, aldiz, 8.a.

Haurren mailakoak ere gynnakan lehiatu ziren. Emakumezkoetan Saioa Gil izan zen onena. Joana Irastorza 31.a sailkatu zen, Bakarne Gonzalez 33.a eta Leire Maiza 34.a. Euskadi izan zen talde onena, eta Nafarroa 11.a. Eta haurren gizonezkoen mailako gynnakan Sergio Trueba kantabriarra gailendu zen. Iosu Etxeberria 37.a izan zen eta Ailetz Lasa 49.a. Cantabria probako talde onena izan zen eta Nafarroa 7.a.

## ... eta Eneko, txapeldun Urdiainen

HELMUGAKO MARRAN NAGUSITU ZITZAION ALEJANDRO MARTINEZI, I. URDIAIN TROFEOAN

Aitziber elkarteak, hainbat talde eta komertzioen laguntzarekin, juniorrendako I. Urdiain Trofeoa (90 km) antolatu zuen astearte arratsaldean.

### Esprint estua

80 txirrindularik eman zuten izena. Bitan igo behar zuten Altamira. Lasterketa gogorra egin zitzaion

txirrindulari askori. Erorikoak ere izan ziren, eta azkenean 42 txirrindularik lortu zuten helmugara iristea. Burundako Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia iturmendiarra eta Alicanteko Esetec-Melia taldeko Alejandro Martinez iritsi ziren batera helmugara. Esprint ikusgarrian, helmugako marran bertan gailendu zen Aramendia, laster-

terketa irabaziz eta juniorren lehen urteko sailkapenean lehenengoa sailkatuz. Segundo batzuetara txirrindulariz osatutako taldetxoak helmugaratzen hasi ziren.

Gainontzeko sakandarrei dago kienez, Quesos Albeniz taldeko Asier Ormazabal 32.a sailkatu zen, 2:37ra eta Aralarako Intersport Irbia taldeko Izai Mauleon 38.a, 2:38ra. Probako talde onena Aseores de Navarra izan zen, mendiko sailkapena Aseores de Navarrako Adrian Martinek irabazi zuen eta tartekako helmugako sailkapena Esetec-Melia Alicanteko Cesar Sanchezek.

Eneko Aramendia pozik zegoen etxetik gertu, Sakanan bertan,



Aramendiak esprint estuan irabazi zion Martinez.

lasterketa irabazi izanagatik, Ibilbide bikaina darama iturmendia-

rrak eta seguru poztasun gehiago emango dizkigula.

## Areto futbola

# Animatu II. Futsal Sakanara!

Abuztuaren 15a baino lehen eman daiteke izena [www.futsalsakana.es](http://www.futsalsakana.es) web gunean. Partidak Altsasun, Irurtzunen eta Uharteko Arakilen jokatu dira

Aurreko denboraldian antolatu zen, lehenengoz, Futsal Sakana Txapelketa. Xota areto klubari lotutako Leandro Fernandez jokalaririk ohi eta areto futbol entrenatzailearen ideia izan zen txapelketa sortzea, areto futboleko zaletasuna duten talde sakandarrek non aritu izan zezaten. Deialdiak erantzun ona izan zuen eta 7 taldek eman zuten izena. Arbizuk irabazi zuen txapelketa. Ondoren, Futsal Sakana Kopa abiatu zen eta 3 talde gehiagok eman zuten izena. Finalan Racing San Migel gailendu zen.

### Talde gehiago animatu

Txapelketan oso gustura aritu dira taldeak eta gehienek edizio berriari jarraitzeko asmoa dute. Hala ere, txapelketan oraindik talde gehiago nahi dituzte. "Talde gehiago animatu nahi ditugularitza, txapelketan oso giro ona egon delako. Uharteko Arakilez aparte, aurten partidak Altsasun eta Irurtzunen ere jokatuko aukera dago" adierazi digu Leandro Fernandez antolatzaileak.



I. Futsal Sakanako txapeldun Arbizu eta txapeldunorde Racing San Migel.

Talde bakoitzak 700 euro ordaindu beharko ditu. Talde bakoitzak 15 jokalaririk izango ditu gehienez, baina partida bakoitzean gehienez 12k jokatu ahaliko dute. Lesioendako aseguru egin ahaliko da 20 euroren truke.

Txapelketa irailean hastea eta maiatzean despeditzea aurreikusitena da. Ondoren Kopa jokatu da. Ostiralean Irurtzunen eta Altsasun jokatu dira partidak, eta larunbatean Uharteko Arakilen eta Altsasun. Igandetan ere partidaren batzuk jokatuko aukera izango da. Guztia behar bezala antolatzeko, abuztuaren 15era arte dago irekia izena emateko epea ([www.futsalsakana.es](http://www.futsalsakana.es)).

### Baldintzak

Talde bakoitzak 700 euro ordaindu beharko ditu. Talde bakoitzak 15 jokalaririk izango ditu gehienez, baina partida bakoitzean gehienez 12k jokatu ahaliko dute. Lesioendako aseguru egin ahaliko da 20 euroren truke.

### Sariak

Txapeldunak 300 euro eta trofeoa, txapeldunordeak 200 euro eta trofeoa, jokalaririk onenak eta aitezain onenak trofeoa.

## Triatloia

# Sakanako XII. Haur Triatloian izena emateko epea zabalik

Urdiaingo igerilekuan jokatu da, garilaren 19an

Mank-eko Kirol Zerbitzuak, hainbat entitateen laguntzarekin Sakanako Triatloi Taldea, Urdiaingo Aitziber elkarteak, Urdiaingo Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioa-Sakanako XII. Haur Triatloia antolatu du garilaren 19rako Urdiaingo igerilekuan.

### Garilaren 17ra arte

Aipatu probak Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak dira eta ondoko kategorietan jokatu dira: aurre-benjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak eta juniorrak. Parte hartzeko aurretik izena eman beharra dago Nafarro-

ako Triatloi Federazioko web gunean ([www.navarratriatlon.com](http://www.navarratriatlon.com)) edo [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com) web gunean.

### Sakandarrak Ebroko erronkan

Larunbatean Ebroko XIV. Erronka jokatu zen Tuteran. Hasiere batean triatloi proba zen, baina uholdeengatik Ebro nahiko zikina eta korronte handiarekin zetorren eta antolakuntzak igeri egiteko tartea korrikaldiarengatik ordezkatu zuen. Martin Ignacio Müller (59:36) eta Nuria Rodriguez (1:10:01) izan ziren azkarrenak. Sakana Triatloi Taldeko Juantxo Azurmendi 104.a izan zen (1:10:52) eta haren taldeki de Carlos Manero 143.a (1:14:23).



Kiroldegia

# Indurain fundazioak 6 sakandar bekatu ditu



Beka jaso duten kirolariak, Migel Indurainekin eta instituzioetako ordezkariekin. UTZITAKOIA

Migel Indurain Fundazioak urtero ematen dituen kirol bekak banatzeko ekitaldia egin zuen uztailaren 3an Gorraizko Gazteluan. Aurten Nafarroako 121 kirolari amateur

edo afizionatu saritu ditu fundazioak, 69 gizonezko eta 52 emakumezko. Guztira 153.840 euro banatu ditu fundazioak. Krisia asko nabaritu da, 2013an, soilik urte bat lehen-

go, 210.076 euro banatu baitziren. "Egungo egoera ekonomikoari egokitu behar izan dugu, baina kirolarien lana sustatzen jarraituko dugu" adierazi dute fundaziotik.

## Bekatutako sakandarrak

**Kirol olinpikoetan:** June Kintana disko jaurtitzaila (Espainiako Txapelketan 5.a, 1.400€) eta Sara Lizarraga borrokalari (Espainiako Txapelketan 3.a, 1.400€).

**Kirol ez olinpikoetan:** Joseba Fernandez irristalaria (Munduko Txapelketan bigarrena, 2.100€) eta Jose Luis Iriarte arku jaurtitzaila (Munduko Txapelketan 3.a, 1.400€).

**Programa berezietan:** Koldo Murgiondo pilotaria (400 euro).

**Kirol egokituan:** Rosa Jaka (430€).

## Mendia-abentura



## Altsasu Xtrem abentura probak antolatu dituzte

UZTAILAREN 19AN IZANEN DIRA EGUN OSOKO PROBAK, ALTSASUKO GAZTE ASANBLADAK ANTOLATUTA

Altsasuko Gazte Asanbladak udasasoen urtero antolatzen du ekitaldi berezi eta ikusgarriren bat: Gazte Wood, Maragatoia, kirol ekitaldi bereziak... Aurten, uztailaren 19rako Altsasu Xtrem abentura proba berezia antolatu dute.

Altsasu Xtremen altxorra bilatzera jokatu dute parte hartzaileek, taldeka. Altxorra bilatzeko mota guztietako abentura probak gaintitu beharko dituzte, Altsasuko herri gunean eta basoetan. Indarra, trebetasuna, orientazioa, elkartasuna... hori guztia landu beharko dute ezarriko zaizkien probak gaintitu ahal izateko. Horrela iritsiko baitira altxorra edo sari potolora.

Altsasu Xtreme garilaren 19an abiatuko da, goizeko 11:00etan, Altsasuko Foru Plazatik. Proba egun guztian barna gauzatuko da eta gauean afaria antolatu dute gazte txean. Afalostean egunak eman duenaren balorazioa egingen da eta gonbidatu bereziak izanen dira. "Abenturazaleendako, ameslariendako, sortzaileendako... finean, ongi pasatu nahi duten guztiondako prestatu dugu Altsasu Xtrem

me" diote Altsasuko Gazte Asanbladatik, lehiaketa berezian izena ematera animatuz.

Saria zein den ez dute azaldu nahi "bestela jokoak duen xarma galtzen delako. Baina lasai, saria egongo da. Helburua ongi pasatzea da, baina are hobeto pasako du saria lortzen duen taldeak" gaineratu dute Altsasuko Gazte Asanbladakoek.

### Izena emateko

16 urtetik gorako neska-mutikoek eman dezakete izena. Horretarako, Gazte txeko zerrendan izena eman edo altsasuxtreme@gmail.com e-postaremezua bidali. Gastuei aurre egiteko, parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu egunetan bertan.

### Parte hartzeko materiala

Mendian ibiltzeko arropa, motxila, oinetako aproposak, urez betetako kantinplora eta eguraldiari aurre egiteko beharrezkoak direnak. Horretaz gain, mugikorrak, eta argazki edo bideo kamerak beharrezkoak dira. Gaintontzeko, bazkaria eta afaria barne, antolakuntzak jarriko du.

## Aizkora

# Nazabalek eta Saralegik Nafarroako Bikotekako txapela nahi dute

Igandean, 12:00etan, Iruñeko Foru Plazan

Sanferminetara joan eta txapela batekin bueltatzea. Ederra litzateke gero Floren Nazabalendako. Etxarri Aranazko aizkolariak Ruben Saralegirekin osatuko du bikotea Nafarroako Bikotekako Aizkolari Txapelketan parte hartzeko. Beste bi biko izanen dituzte aurkari: Jon Rekondo-Ander Erasun eta Donato Larretxea-Juanjo Lopez. Egin beharreko lana, ez nolana hiko: 6 kana-erdiko eta 6 60 ontzako erdibitza.

Aurreko urtean Nazabalek Erasunekin osatu zuen bikoia. Final dotore eta ikusgarrian hasieratik hartu zuten aurrea Nazabalek eta Erasunek, baina txapela jantziko zutela zirudienean, azken enborrean ezustekoa gertatu zen: Larre-



Nazabal iaz Erasunekin aritu zen.

txeak eta Rekondok abiadura azkartu eta gailentzea lortu zuten, Nazabali eta Erasuni lau aizkorakada eskasengatik irabaziz. Azken txanpan ihes egin zion txapelak Nazabali, baina ea igandean sanferminetatik txapeldun bueltatzen zai-gun Etxarriko txapeldun handia.

## Waterpolo

# Waterpolo Altsasun

Garilaren 15ean, 17:00etan, Dantzalekuko igerilekuan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Altsasuko Udalak waterpolo jardunaldia antolatu dute garilaren 15erako, 17:00etan, Altsasuko Dantzaleku igerilekuan.

Kimuek (2004, 2005), haurrek (2002, 2003) eta kadete-jubenilek (1997-2001) hartu ahalko dute parte waterpolo jardunaldian. Horretarako izena eman beharko dute, garilaren 11 baino lehen, Mankeko kirol zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com). Izena ematen dutenen kopuruaren arabera autobusa antolatuko da.

Waterpolo jardunaldian, herri desberdinetako eta adin desberdi-



Haurrak waterpoloan.

netako neska-mutikoak nahasi egingo dira taldeak sortzerakoan, ahalik eta talde orekatuenak sortuz. Eta waterpoloarekin disfrutatuz ongi pasatzea izango da jardunaldiaren helburua.



## Non erabili

### LURESU

#### ALTSASU

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

### NORTE ERLOJUDENDA

#### ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

### MENDIGAIN

#### URDAIAZPIKOAK

#### LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### URREZKOA

#### BITXIDENDA

#### IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

### URRUTIA HARATEGIA

#### IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### ETXARRI KOMERTZIALA

#### ETXARRI ARANATZ

% 10eko deskontua koltxoietan.

### ARKANGOA TABERNA

#### ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

### GIXANE ESTETIZISTA

#### ALTSASU

%5eko deskontua zerbitzu guztietan eta produktuetan.

### PINPILINPAUSA

#### ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

### TEXARTU

#### IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 564 355**  
**679 160 116**  
(24 ORDUZ)

**TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA**

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.  
Bidai mezua [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net) -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.

Hainbat aukera. Galdetu 948 564 275




**Oroigarriak egiten ditugu**  
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)

**GUAIXE KOMUNIKAZIOA**

[guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en doan  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

**Higiezinak**  
**LOKALAK**

**ERRENTAN EMAN**

**Bakaikuko Bakarrek elkartea festetan alokatuko da.** Enkarteren hasierako prezioa 2.000 € lokal handia eta 1.000 € lokal txikia. Epearen bukaera uztailaren 11n gaueko 22:00etan. Interesatuak elkarte postontzian utzi izena eta telefonoa.

**Dorraoko jaietarako 2 tabernak.** Alokatzan dira (abuztuaren 14tik 17ra). Interesatuak deitu 660 88 33 34 telefonora uztailaren 30a baino lehen.

**LURSAILAK**

**SALGAI**

**Lur eremua saltzen dut.** Bakaiku eta Iturmendi artean. Hots egin 662 16 72 12 telefonora.

**Oparitakoak/opatutakoak**

**OPATUTAKOAK**

**Giltza sorta opatuta.** Altsasuko plazako kioskoan hilaren 2lean. Galdu duenak Urtzi tabernara zuzendu.

**Giltzak mando batekin.** Opatuta Arbizuko festetan. Galdu dituenak Guaixera hots egin dezala 948 564275.

**Ikastaroak**

**AES.** "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

**Cederna.** Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

**IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

**Forem Navarra - CCOO ikastaroak.** Informazio gehiago: [www.foremnnavarra.org](http://www.foremnnavarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

**Lehiaketa**

**ETBko lehiaketarako lehiakideak.** Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

**Oharak**

**Saharaztan boletoen zenbaki sarituak.** 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Tartalariendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daitezke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzan: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu.** Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

**Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonek.com/laguntza](http://www.euskonek.com/laguntza) euskonek@euskonek.com, 943- 32 22 94.

**Sukaldaritza - trukea.** Informazio gehiago [larrezabaldk@inigoaritz.com](mailto:larrezabaldk@inigoaritz.com)

**3MBk kontu korrantea zabaldu du.** Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38

50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikan.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosofosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosofosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosofosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosofosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarrea eta denda.** Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldako tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko

**EZKONTZAK**

- **Haizea Elizondo Ramos,** ekainaren 22an Altsasun.
- **Andoni Moral Razkin,** ekainaren 30ean Irurtzun.
- **Lourdes Jimenez Texeira,** ekainaren 30ean Altsasun.
- **Xabat Muñoz Sesma,** uztailaren 4an Etxarri Aranatzan.

**EZKONTZA**

- **Mikel Lopez de Zubiria** Gabirondo eta Maite Azkargorta Galarza, ekainaren 28an Iturmendin.
- **Otman El Ogdji eta Meriem Mahdi,** uztailaren 4an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigrazioa@sakanamank.com](mailto:immigrazioa@sakanamank.com) posta elektronikoa.

**Gazteendako sexualitate aholkularitza.** Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleatik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaitze Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo [sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.



**Berezitasunak:**  
**ODOLKIAK, SALTXITXAK,**  
**BETEGARRIAK, TXISTORRAK**  
**eta ETXKO FRITOA**

Jai zortentzuen pasta

**T. IRIARTE**

harategi eta urdaitzia

Lizarrakalea 8 - 948 50 00 87  
**IRURTZUN**



**urrutia**  
enea

**Irurtzun**  
948 500 086  
**Lekunberri**  
948 504 105  
[info@urrutiaenea.com](mailto:info@urrutiaenea.com)  
[www.urrutiaenea.com](http://www.urrutiaenea.com)

## Irurtzunen, zinema kalera

Heldu den astetik aurrera sei emanaldi eginen dira plazan

Irurtzungo festen bezperan, asteartean hasiko da Udako Zinema zikloa. Foru plaza zinema areto bihurtuko da. Hurrengo asteko emanaldia ez beste guztiak asteazkenetan izanen dira eta beti 22:00etan hasiko dira filmen proiektzioak.



## Karteldegia

**Garilak 15:** La vida secreta de Walter Mitty.

**Garilak 23:** Ocho apellidos vascos.

**Garilak 30:** Los juegos del hambre: en llamas.

**Agorrilak 6:** Percy Jackson y el mar de los monstruos.

**Agorrilak 13:** Ahora me ves...

**Agorrilak 20:** Asterix eta Obelix: maiestatearen zerbitzura.

## Euskaraz bizitzeko nahia iruditan jasotzeko gonbitea



Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak *Euskaraz bizi nahi dut* film labur lehiaketa antolatu du hirugarrenez. Film laburren bidez euskaraz bizitzeko nahia irudikatzea da lehiaketa honen helburua. Horretarako, filmean ondoko ideietakoren bat garatu beharko da: herritarrei euskaraz bizitzeko arrazoiak eskaintzea; euskaraz bizitzeko parratu behar diren egoerak agerian uztea edota sortzen duten egonezina islatzea; euskaraz bizitza erabaki dutenen adorea eta jasotzen duten elkartasuna adieraztea edota sortzen eta jasotzen dituzten estimulu positiboak erakustea

eta, azkenik, etorkizuna irabazteko *Euskaraz bizi nahi dut* pentsamendua iraultzailea dela azpimarratzea.

Lanak irailaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira. Kontseiluak film-laburrak zabaltzeko eskubidea gordeko du. Hala, 10 lan onenak Donostiako Zinemaldian emanen dira. Sail profesionalean eta amateurrean hiruna sari banatuko dira zinema jaialdiaren baitan.

[www.euskarazbizinahidut.org](http://www.euskarazbizinahidut.org)

Informazio gehiago lortzeko jo aipatu webgunera.

## Arretxe, Xixondik Bartzelonara

Jon Arretxe idazleak bihar, 13:00etan, Bartzelonako Negray Criminal liburu-dendan aurkeztuko du bere azken liburua, *Hutsaren itzalak*. Polizia-nobela, beltzean eta intriganobela espezializatutako dendan Toureren azken pasadizoen berri emanen du arbizuarrak.

Herenegun Xixonen gauza bera egin zuen Arretxek. Asturiasko



hirian ospatzen ari den Aste Beltzeko egitarauaren barruan arbi-zuarrak gaur egun nobela beltza

zergatik idatzi galderari erantzun behar izan zion mahainguru batean parte hartu zuen.

## Joe Cockerrek Altsasun kontzertua eskaini zueneko

Asteartean 25 urte beteko dira Joe Cockerrek Altsasun kontzertua eskaini zuela. Dantzalekun izan zen, arezko futbol zelaietan. *One night of a sin* diskoaren aurkezpen biraren barruan egin zuen geldialdia Altsasun. Musikari britainiarrak bluesa, soula eta rock and rolla oinarri zuen emanaldia eskaini zuen 350 metro karratu zituen eszenatokitik. 6.000 pertsonen aurrean aritu zen 23:00etatik 1:30era eta bi bisekaini zituen. Kontzertuaren sarrerak 1.500 pezeta balio zituen. Iñigo Aritzta ikastolak antola-



tu zuen kontzertua. Eraikinean hainbat hobekuntza egin behar ziren eta haiek finantzatzeko udaberri eta uda hartu zuen kultur

programa indartsua antolatu zuen: *Irrintzi*. Antzerkia, dantza, musika eta beste bildu zituen kultur egitarauak.

30€ zona beko

no+vello  
fotodepilación con tarifa plana

No+Vello Beasain  
Dolare kalea 1 · BEASAIN  
943 041 715  
beasain@nomasvello.com

Ilea, nahi duenarentzat!

Egin zaitez bazkide

[www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

beleixeguaixe

**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 45%	euria: 20%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 18%	euria: 20%
Min: 11 Max: 17	Min: 11 Max: 19	Min: 10 Max: 21	Min: 11 Max: 23	Min: 12 Max: 29	Min: 16 Max: 28	Min: 15 Max: 25

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	31	11.5	53.3
Etxarri A.	29.7	10.4	61.2
Altsasu	29	11.5	49.7
Aralar	22.1	6	71.3
Urbasa	25	9	55.4

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
12	19	26	4

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com  
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixe gualxe

**Garileko bazkide zozketa**

**CAMPING ARTAZO**

locurale elhuyar

**GARILEKO SARIAK:**

- Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezero aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Armix sukaldetan liburua.
- Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezero aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Lunatikoa liburua.
- Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezero aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Armix sukaldetan liburua.
- Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezero aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Lunatikoa liburua.

>> **11 galdera**

**Asier Agirre Lezea**  
Morlaco Beer garagardoaren sustatzailea

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



**1.- Morlaco Beer, izen bitxia gero. Zergatik aukeratu zenuten?**  
Lehenik eta behin logoa sortu genuen: zezen bat txapel eta zapi batekin. Orduan, izena erabakitze-ari ekin genion. "San Fermin" otu zitzaigun, baina baztertu egin genuen, komertzial eta "giri" xamarrak zelakoan. Morlaco izena bururatu zitzaigun. Egokia zela irizti genuen, Iruñeko nortasunarekin irmoki lotuta dagoelako.

**2.- Zer da zuek egiten duzuen?**  
Une honetan ezin dezakegu ekotzi, osasun-lizentzia falta zaigulako. Gainera, habea egokitzeko lanetan ari gara, garagardoa guk geuk ekoiztu ahal izateko. Lizentzia lortu bitartean Burgos eta Logroñoko bi mutilari dira garagardoa egiten, beti ere gure errezetari jarraiki.

**3.- Zergatik ekin zenioten abentura honi?**  
Hiru kideak garagardo asko edaten den zenbait herrialdetan egon gara, besteak beste, Frantzia, Alemanian, Irlandan eta AEBn. Bertan sekulako garagardoak dituzte, eta edozein lekutan eska dezakezu pinta bat. Hemen, ordea, kalitate oneko garagardoak edatea ez da horren erraza. Horregatik erabaki genuen gure garagardo propioa ekoizten hastea.

**4.- Imajinatzen dut lehenengo urratsak zailak izango zirela...**  
Nirekin dabilzan bi kideek nik baino dezente denbora gehiago daramate garagardoaren inguruan lanean. Borjak hiru urte daramatza probak egiten eta errezetak aztertzen. David Ingalaterran zegoen bitzitzen, eta itzuli zenean, Borjarekin bildu zen,

proiektuari forma eman eta aurrera ateratzeko. Ni abenduan sartu nintzen. Hastapenak ez dira errazak. Emaizta baikorrek lortzen diren arte, proba ugari egin behar dira, eta proba akastun bakoitzeko hilabete bat galtzen da.

**5.- Zer aurki dezakegu zuen katalogoan?**  
Bost barietate ditugu: hori bat, beltz bat, garizko bat eta bi ilun. Barietate horia da gehien saltzen duguna, tabernetan gehienbat garagardo horiak kontsumitzen baitira. Alta, artisau-garagardogileak garenaz, beste estiloetan ere murgiltzea erabaki genuen.

**6.- Artisau garagardoaren salmenta eremua oso zabala ez dela dirudi. Hedatzeko arazorik izan al duzue?**  
Orain dela gutxi ekingen proiektuari, eta dagoeneko Iruñeko 30 tabernetan aurki daiteke gure garagardoa. Jendeak uste du hemen ez dagoela merkaturik, eta esportatzea derrigorrezkoa dela. Guk, ordea, bestelako filosofia dugu. Tokiko merkatuaren aldeko apustua egin dugu, eta emaitza onak ari gara lortzen: Iruñeko erdiguneko tabernetan geroz eta presentzia handiagoa daukagu, eta Sakanan bertan ere eskari batzuk izan ditugu.

**7.- Ekintzaileen esparruko sari bat eman dizue Nafar Gobernuak. Zer suposatzen du horrek?**  
Ate ugari ireki dizkigu. Taberna eta abarretara gu deitzen aritu beharrean, orain banatzaile eta babesleak ate joka ditugu, eta hori sekulako pagotxa da, lan asko aurrezten dizulako. Gainera, dirulaguntza bat ere eman digute.

**8.- Nolakoa da artisau garagardoa egiteko prozesua?**  
Lehenik eta behin, malta uretan beratzen da. Ondoren, otsaihenekin egosten da, eta behin hori egin da, lortzen den garagardo salda hartzitu egiten da. Prozesuan makineriak zer esan handia du. Osasun-lizentzia lortuz gero, ekoizpena handitzeko aukera izanen dugu, gure instalazioetan eltze handixagoak ditugulako.

**9.- Zein desberdintasun dago artisau garagardo eta garagardo industrialen artean?**  
Artisau garagardoa botilaratu eta saltzen duzunean, barruko likidoak bizirik darraiela esan daiteke, garapen etengabea dagoelako. Industrialetan osagai kimikoak erabiltzen dira, batez ere gehiago iraun dezaten. Artisau garagardoek ez dute hainbeste irauten, baina zapo-errez askoz ere goxoagoak dira.

**10.- Zuen bezalako marka txikiek aurre egin diezaiekete garagardo multinazionalari?**  
Marka txikiak dagoeneko multinazional handiei aurrea hartzen ari zaizkie zenbait lekutan. Marka handiak ohartu dira, eta barietate berriak egiten hasi dira, atzean ez geratzeko. Zenbait kasutan, marka txikiak asko hedatzen direnean, multinazionalak iritsi eta erosi egiten dituzte, arriskuak ekiditeko.

**11.- Oztoporik handienetarikoa salneurria izango da...**  
Bai. Nahiz eta tabernarietara garagardoak prezio onean saldu, haiek 3 eurotik gorako prezioan saltzen dituzte. Horrela lehiaztea ez da erraza, garagardo arruntaren prezioak dezente baxuagoak direlako.

**Bi TOKI**  
TABERNA • JATETXEA

**Bokatak**

Izena / Nombre:

- Patata-tortilla 3,75€
- Tortilla de patatas
- Urdiazpiko-tortilla 3,75€
- Tortilla de jamón
- Urdiazpiko eta gazta tortilla 3,75€
- Tortilla de jamón y queso
- Atun-tortilla 3,75€
- Tortilla de atún
- Zainuri-tortilla 3,75€
- Tortilla de espárragos
- Txistorra-tortilla 3,75€
- Tortilla de txistorra
- Gazta-tortilla 3,75€
- Tortilla de queso
- Garba eta baratxuri irakoen tortilla 4,00€
- Tortilla de ajos verdes y garbanos
- Solomoa 3,75€
- Lomo
- Solomoa gaztarekin edo piperekin 4,00€
- Lomo con queso o pimientos
- Urdiazpikoa 3,70€
- Jamón
- Urdiazpikoa gaztarekin edo piperekin 4,00€
- Jamón con queso o pimientos
- Hirugarren gaztarekin edo piperekin 3,80€
- Tocineta con queso y pimientos
- Begotata 4,00€
- Vegetal
- Begotata urdiazpikarekin edo solomoarekin 4,50€
- Vegetal con jamón o queso
- Xerra 4,75€
- Filete
- Xerra gaztarekin edo piperekin 3,00€
- Filete con queso o pimiento
- Txikiroak maionesarekin 3,75€
- Bafas de calamar con maionesa
- Fritxoak (bat) 1,20€
- Fritos (unidades)
- Bitoki berezia (solomoa, gazta, piperrordea, tipula potatua eta maionesa) 5,00€
- Bitoki berezia (fritxo, queso, pimiento verde, cebolla pochada y maionesa)

948 467 876 • ALTAJAJU

**Guaixe KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275 argi@guaixe.net

Zure jatetxe-tabernarako behar duzun menu kartak, eskaera-orriak, publizitatea...